

# Tokian tokiko aldizkariak Bilbon

*Hektor Ortega jauna*

Bost izan dira Bilbon azken hogeita bost urteotan informazio lokala zabaldu duten eragileak: egunkariak, publizitate agentziak eta kazetariak sortutako enpresa txikiak, instituzioak, merkatari elkarteak eta herri mugimendua. Herri mugimendu horren emaitza dira Bilboko herri aldizkariak. 1995eko hastapenetatik –*Zorrotz-Morrotz* eta *Hitza Hartu*– eta gaur egungo errealitatea –*Zorrotzakoaz* gain, *Berton* eta *Prest!* aldizkariak–.

Giltza hitzak: Tokiko, informazioa, herri mugimendua, Bilbo

## **Las revistas de información local en Bilbao**

Los factores que han contribuido a la creación de revistas de información local son los siguientes: Periódicos, pequeñas empresas de las agencias de publicidad y de periodistas, instituciones, empresas comerciales y el movimiento popular. Las revistas de Bilbao son fruto del movimiento popular. Desde 1995 con las revistas *Zorrotz-Morrotz* y *Hitza hartu* hasta la realidad de hoy en día, además de la de Zorroza, con las revistas *Berton* y *Prest*

Palabras clave: Prensa local, movimiento popular, Bilbao

## **Local news magazines in Bilbao**

The factors that have contributed to the creation of local news magazines are as follows: Newspapers, small companies of advertising agencies and journalists, institutions, commercial companies and the popular movement. The Bilbao magazines emerged because of the popular movement. From 1995, with the magazines *Zorrotz-Morrotz* and *Hitza hartu*, until today with the magazines *Berton* and *Prest*, besides the Zorroza publication.

Key words: Local press, Popular movement, Bilbao.

Munduan beste askok legez, Bilbok tokian tokiko informazioa eskaintzeko komunikabide idatziak eduki ditu, badauzka eta, seguruenez, aurrerantzean ere edukiko ditu. Hurrengo lerro hauek arlo horretan murgilduko dira. Lehenengo eta behin 1979tik hona egin izan diren ahaleginak eta errealitateak labur azaltzeko. Gero, tokian tokiko aldizkariak zertan diren agertzeko.

Idatzitako informazio lokala agente askoren esku izan da azken hogeita bost urteotan Bilbon. Duda barik, eragingarriena eguneroko prentsa izan da. 1977an *Deia* eta *Egin* egunkariak agertu ziren kioskoetan. Batak zein besteak berrikuntza asko ekarri zituzten, hala ikuspegiaren aldetik nola informazioa lantzeko moduari dagokionez. Besteak beste, tokian tokiko albisteekin sail indartsuak osatu zituzten, gainerako notiziei ematen zitzairen tratamendu profesional berekin jantzita. *Deiak* eutsi egin zion informazio lokalaren tarte zabal horri eta gaur ere horretan dihardu 'Metro' sailarekin; ez, ostera, *Eginek*, lehenengo krisialdia etorri zitzaionean sail hori Bizkaia osorako orrialde bakarrera mugatu zuen-eta. 1989an Bilboko informazio lokalerako tarte berezia ireki zuen berriz ere, eta halaxe iraun zuen 1998ko uztailaren 15era arte, espainiar epaile batek *Egin* itxiarazi zuen arte alegia.

Atzera ere 1977ra itzulita, laster desagertuko zen *La Gaceta del Norte* orduantxe gailendu zitzaion *El Correo Español*. Neguriko familia boteretsuei lotuta, Boluetako egunkariak ere informazio lokalari arreta handia eskaintzen zion. Haren arrakastaren oinarri nagusietako bat bihurtu zuen, zehatzago esanda. Eta jakina, informazio lokal horretako izarrak Bilboko gaiak izaten ziren orduan eta halaxe da gaur egun ere. Gainera, sasoi batzuetan eta leku batzuetan *Vecinos* doako gehigarria banatu izan du *El Correok*. Bilbon *Vecinos de Bilbao*, *Vecinos de Santutxu* eta *Vecinos de Indautxu*, besteak beste.

Egunerokoekin jarraituz, 1999an *Euskaldunon Egunkariak Bizkaia* gehigarria kalean jarri zuen Bizkaiko Foru Aldundiarekin lortutako akordio baten ondorioz. Lehenengo biderrez, irakurleak Bilboko informazio lokala euskara hutsez eduki zuen eskura. Halaxe iraun zuen 2003ko otsailaren 20ra arte, hots, espainiar epaile batek *Euskaldunon Egunkaria* itxiarazi zuen arte.

Espainiar Estatuko prentsa idatziak ere bertoko informazioa eman izan du bere edizio lokaletan. Hori izan da 1990ko hamarkadatik *El Mundo* eta *El País* kasua, gehienbat. Biek ala biek informazio lokala bertoko merkatuan xertatzeko bide gisa ikusi dute.

*Gara* eta *Berriak*, azkenik, ez diote informazio lokalari aparteko garrantzirik eman euren orrietan. *Garak* Euskal Herri osoko notizia lokalak batzen dituen sail bat atondu du. *Berriak*, ostera, estrategia berri bat hasi du, eskualdekako *Hitza* doako egunerokoak sustatzea. Hasieran etxe guztietara doan eramaten ditu eta hilabete batzuk geroago kuota txiki bat eskatzen du. Oraingoz bost *Hitza* daude, lau Gipuzkoan eta bat Bizkaian, Lea-Artibai aldean.

Izan ere, horixe da informazio lokalari azkenaldion estu atxikita doan ezau-garria. Eguneroko prentsa orokorra ez bezala, gero eta gehiago musutruk bana-tzen da. Bide horietako bat, ordea, egunkariei eurei lotuta dago, *Berria* eta *Hitzaren* kasuan legez. Vocento talde guttiz ahaltsuak –*El Correoren* ugazabek– 2000 urtean *El Nervión* kaleratu zuen Bilbon. Harrezkero metro sarbideetan banatu izan dute astelehen eta ostiral bitarteko goizeko lehen orduetan, doan. Bere orrietan informazio lokala ez eze, politika, gizarte, kirol eta nazioarteko kontuak sartzen dira. Botaldia 45.000 alekoa da.

Kontua da *El Nervión*en bitartez Vocentoko arduradunek beste proiektu batzuk zapuztu nahi izan zituztela. Besteak beste, Suediako Metro konpainia indartsuarenak. Izan ere, *El Nervión* agertutakoan, munduko doako prentsaren erregeak bertan behera utzi zuen Bilbon eguneroko bat argitaratzeko asmoa. Jokaldi biribila Vocentorentzat, *El Nervión*ek harrera ona lortu zuen-eta. Hala ere, garaipenak inoiz ez direnez behin betikoak, egunotan beste proiektu bat abian da gure artean, Recoletos taldeak bultzaturik. Eurak be Bilborako doako egunkari bat prestatzen aritu dira azken hilabeteotan.

Prentsa lokalaren beste eragile garrantzitsuak komunikazio kabineteak, publizitate agentziak eta kazetari enpresa txikiak izan dira. Euren eraginez proiektu batzuk sortu dira berez errentagarriak izateko asmoarekin. Kasu gehie-netan doan banatu dituzte eta, gehienez, hilabeteko maiztasunez plazaratu dituzte. *Diario Metropolitano* 1991n hasi zen baina ez zuen bide luzerik urratu. 1997an *Extra* jaio zen, Bilboko Udalaren enpresa hazitegi baten, hiru gazteren ekimenez. Lehenengo *Extra Santutxu* egunkari formatuko hilabetekaria plaza-ratu zuten. Etxeetako postontzietan 20.000 ale banatu zuten, doan. Diru iturria, publizitatea. Berehala *Extra Casco Viejo* eta geroago *Extra Deusto* etorri ziren. Azken horrek bide laburra egin zuen eta *Extra Casco Viejo* ere luze barik desa-gertu zen. Hala ere, egoitza La Najara aldatuta, beste hilabetekari bat kaleratu zuten 1999 urtean: *Bilbao Información*. Aurreko *Extren* ezaugarriez hornitu zuten –egunkari formatua, etxeetara doan banatuta, publizitatea diru iturri– eta 30.000 ale banatzen hasi ziren. Gaur egun ere *Bilbao Información* metro sarbi-deetan banatzen dute hilero.

Bestelako proiektua da *Gran Bilbao*, kalitate handiko urtekaria. DDA Comu-nicación publizitate agentziak argitaratzen du eta azkena hamargarren zenbakia izan da. Izenak berak aditzera ematen duenez, 1994-2004 bitarteko ibilbidean Bilboko gaiak ez eze, inguruetaoak, Bizkaikoak eta kulturak ere jorratu dituzte. Berez atal honetakoa ez bada ere, *La Ría del Ociok* aipamena merezi du, kulturari eta aisialdiari urte luzez eskainitako lanagatik.

Azken hogeita bost urteotan merkatarik elkartek ere agente bihurtu dira gure prentsa lokalaren arloan. Hainbeste auzotako dendariak inoiz argitalpenen bat edo beste egin dute auzoko kontuak ekarriz eta, bide batez, euren negozioen bertuteak euren auzokideen artean zabalduz. Egun *Deusto Bizirik* kaleratzen

dute Deustuko merkatariek. Hiriko beste muturrean, *El Cartero de Santutxu&Txurdinaga* bertako dendariekin estu lotuta dago eta hamalau zenbaki banatu ditu 2003ko martxoan sortu zenetik iragan irailera bitartean. Hala Deustukoa nola Santutxu-Txurdinagakoa doan banatzen dituzte bertako dendetan.

Instituzioak ere prentsa lokalaren arloa jorratuta daude. Kasurik argiena *Bilbao* aldizkaria da, Bilboko Udalak harpidedunei doan banatzen dien hilabetekaria. Egunkari formatuz sortu zuten Jose Maria Gorordo alkatearen agintaldian (1987an), *Akta* bere aurrekaria (1985-87) ordezkaturatuta. Aldaketa gutxirekin jarraitu du harrezkero (*Pergola* aldizkari zena bere baitan gehigarri gisa sartu izana da salbuespena). Bilbao Ría 2000 elkarteak ere azken urte biotan argitalpen dotorea kaleratu izan du bere proiektuen gaineko informazioa doan emateko.

Azkenik, herri mugimenduak ere argitara eman izan ditu bere lanak. Auzo elkarteek, kultur taldeek eta, batzuetan, pertsona batzuek euren kabuz, horrelako proiektuak sakatu dituzte. Horra hor, esate baterako, Bihotzean Zazpi Kaleetako auzo elkarteak 1983an plazaratutako *Bilbo Zahar Berria*. Edo *Revista de Deusto*, 1990 eta 1993 bitartean Deustuko elizate zaharrean argitara emandako hilabetekaria. Egunkari formatuan emanda, ehun pezetatan saltzen zen. Salneurri horretatik lortutakoa eta publizitatea izan zituen diru iturri. Aldizkariaren eragilerik handiena Iñaki Rahm izan zen. Bere orrietan, Deustuko kontu zaharrak, albisteak, polemikak, pertsonaiak eta kirolak batu zituen.

Orain artekoa kontuan hartuta esan genezake azken hogeita bost urteotan sortutako tokian tokiko komunikabide idatzi gehienek bizitza laburra eduki dutela. Aurrera egin dutenen joera nagusia doakotasuna da gaur egun. Enpresa handiek egunerokoak plazaratzen dituzte -Vocento eta, dirudienez, laster Recoletos- eta eragile apalagoek hilabetekariak, hiru-hilabetekariak, urtekariak edo, euskalgintzako ahots ezagun batek esan ohi duenez, *aldabenkariak*. Bide luzea egin ahal izateko, komunikabide horiek, zelan edo halan, profesionaltasuna bermatu behar izan dute.

## **Herri aldizkariak**

Berez, herri mugimenduaren atalaren jarraipena besterik ez da hurrengoa. Orain arte aipatu ditugun argitalpenak, Egunkariaren *Bizkaia* gehigarria izan ezik, erdaraz eman izan dituzte. *Egin* egunkarian Bilboko albisteen artean euskaraz idatzitakoak ere baziren. Izan ere, atal hori izan zen egunkarian euskara gehien zerabilenetarik bat, hizkuntza alor guztietan normaltasunez erabiltzeko ahaleginean. Azken urteotan *Deiako* `Metro´ informazio lokaleko sailean ere agertzen hasi dira euskarazko berriak, gutxi diren arren. Gainerako kasuetan, euskararen erabileraren ehuneko baxu-baxua –*Extra, Bilbao Información, Bilbao* aldizkaria, *El Nervión, Revista de Deusto* ...– edo hutsaren hurrengoa iza-

ten da *–El Correo–*. Salbuespen bakarra Bilbao Ría 2000ren agerkaria da, testu guztiak euskarara itzulita ekarri ohi ditu-eta.

90eko hamarkadan bestelako proiektuak sortu ziren gurean. Alde batetik, prentsa elebiduna euskararentzat bide antzua zela argi gelditu zen. Euskarak gehiago behar zuen. Beste aldetik, euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin prentsaren bidea jorratzen hasi ziren herri mugimenduetako sektore batzuk. Deba Goienean jaio eta Gipuzkoako zein Nafarroako eskualde batzuetara zabaldutako ereduak zeukaten buruan: herri aldizkariak. Fenomeno hori 80ko hamarkadan sortu zen Arrasate aldean. Prentsa lokala euskara hutsez emateko ahalegina izan zen, euskararen erabilera eta normalizazioan eragin nahian. Horretarako ez zegoen herritar guztiak euskaldundu eta alfabetatu arte itxaron beharrik. Arrasaten euskaldunak %50 inguru ziren orduan. Bertako euskaltzaleen bultzadaz, *Arrasate Press* astekaria sortu zuten, doan banatu zuten herriko postontzi guztietara eta erdarazko prentsa lokalari nagusitu zitzaion. Berdin Bergaran *Berrigara*, Eibarren *Eta Kitto*, Nafarroako Bortzirriak eta Baztanen *Tipi-Ttapa...* Euskaraz irakurtzerik ez zegoelako ustea gezurtatuta gelditu zen eredu erraz eta herrikoi baten bidez. Herri aldizkariak ziren.

90eko hamarkadan herrietatik hiriburu batzuetara iritsi zen eredu hori. Lehenengo Gasteizera, *Geu Gasteiz* hilabetekariarekin, 1992an, Geu elkartearen ekimenez. Gaur egun ere hantxe segitzen du, publizitateari, harpidedunen laguntzari eta bertako beharginei esker, diru laguntza publikoak murriztu dizkiete-eta. Sasoi hartan ere Donostiako euskaltzaleek Bagera elkarteak sortu zuten eta euren lehenengo eginkizuna *Irutxulo* astekaria kalean jartzea izan zen, 1994an. *Irutxulo*k 5.000 ale banatzen ditu astero eta hasieran doakoa bazen ere, harpidetza bat kobratzen hasi ziren gero. 2005erako *Berriarekin Hitza* proiektu bat plazaratzekotan daude, astekaria bertan behera utzita.

Donostian eta Gasteizen posible izan zena ez da beste hiriburuetan gertatu. Gasteizen edo Donostian ez bezala, Bilbon ez da euskalgintzako eragileak bazten dituen elkarte edo erakunderik. Eta ez da izan horrelako komunikazio proiektu bat abian jartzeko gaitasun edo interesik agertu duenik. Zenbat Gara elkarteak tankera horretako egitasmo bat esku artean erabili zuen, baina baita azkenean bazter utzi ere.

Horregatik, eta gero zehaztuko ditugun beste arrazoi batzuegatik, ez dago Bilbo osorako euskarazko komunikabide lokalik. Sortu direnak partzialak izan dira, gure hiriko alderdi jakin batzuetara mugatutakoak. Lehenengo hazia Zorrotzan erein zuten, 1995ean Zorrotzako Euskal Txokoa *Zorrotz-Morrotz* aldizkaria plazaratzen hasi zenean. Auzoko aldizkaria zen, euskara hutsezkoa, zuri-beltzezkoa eta doan banatzekoa. Gaur egun ere lau hilabete behin kale-ratzen dute, azalean kolorea sartuta eta 1.000 aleko botaldiarekin. Profesionalizatu barik Bilbon luze iraun duen proiektu bakarretakoa da berau.

Hurrengo urtean Deustuan *Hitza Hartu* kazeta sortu zuten bertako kazetari gazte batzuek, Deustuari Euskara Dariola taldearen arrimuan. 1996-1998 bitar-

tean funtzionatu zuen, bi-hilabetekari gisa. 1.000 aleko botaldia doan banatzen zuten Deustuan. Lan boluntarioari, publizitateari eta diru laguntzei esker publikatu zen.

*Hitza Hartu* desagertu zen urtean Santutxuko, Txurdinagako eta Otxarkoagako euskaltzale eta kazetari gazte talde batek *Berton* aldizkaria jarri zuen kalean. Auzo esparrua nabarmen gaintitzen zuen lehenengo euskarazko proiektua zen. Begoñako errepublika zaharreko auzoetako aldizkaria izateko jaio zen: Uribarri, Txurdinaga, Begoña, Santutxu eta Otxarkoaga. Guztira, 125.000 biztanle. Mila aleko botaldiarekin hasi ziren. Lan boluntarioz egina hau ere, publizitatea eta harpidedunen babesak izan ziren lehenengo uneetan aurrera egiteko bitarteko ekonomiko bakarrak. Urtean mila pezetako kuota ezarri zuten. Aldizkaria etxeetara postaz bidaltzen zuten. Argitaratzailea, Batana Batu elkarteak.

*Bertonek* lehenengo urtean bederatziz zenbaki kaleratu zuen. Bigarrenean, aldiz, zortzi. Lan boluntarioa ez zen nahikoa aldizkaria hilean-hilean argitara emateko. 2000ko otsailean, pertsona bat hartu zuten soldatapean *Bertonen* kazetaritza arloaz arduratzeko. Gaur egun pertsona bi daude bertan egun erdiz soldatapean eta beste dozena bat lagunak musu truk kolaboratzen du. Azken zenbakia, urrikoa hain zuzen, 70.a izan da.

Publizitatearen eta harpidedunen ekarpenei geroago Eusko Jaurlaritzaren, Diputazioaren eta Bilboko Udalaren diru laguntzak batu zitzaizkien. Babes horrekin, 2002ko urtarrilean aldizkaria doan ematea erabaki zuten. Artean 800 bat etxetara sartzen zen. Doakotasunarekin batera, irakurle berriak egiteko kanpaina bat egin zuen aldizkariak. Gaur egun *Berton* 1.700 etxetara sartzen da hilero. Hazkunde polita izan da azken urte biotakoa, baina oraindik ere badago zer eginik: egin kontu Begoñako elizate zaharreko 125.000 bizilagunetatik 20.000 euskaldunak direla (euretako 17.000 alfabetatuta daude) eta beste 23.200 ia euskaldun alfabetatuak direla.

XXI. mendearekin batera beste aldizkari bat etorri zen. Bere albo-herri zaharrari begira balego bezala, Deustua Begoñako errepublika zenaren bidetik abiatu zen. 2001eko martxoan Berbaizu euskara elkarteak *Prest!* aldizkariaren lehen zenbakia jarri zuen kalean. Hilabetekaria, doakoa, *Hitza Hartu* zenaren lekukoa jaso zuen. Arangoiti, San Ignazio, Ibarrekolanda, Deustuko Erribera eta Deustuko auzoetako euskaldunon zentsu bat osatu zuten hasi orduko. Lehenengo zenbakirako 1.200 bat helbide lortu zuten. Botaldia 1.500 alekoa izan zen orotara. Helbidetegi hori hazi eta zuzendu egin izan dute hilero. Gaur egun, *Prest!* 2.000 etxetara iristen da postaz. Botaldi osoa 2.200 alekoa da. Beste 200 aleak liburutegi, denda, taberna, euskaltegi eta ikastoletan banatzen dituzte.

Deustuko errepublika zaharrean, gaur egungo lehenengo barrutian, 51.000 lagun bizi dira guztira. Euretatik 9.500 dira euskaldunak. Alfabetatuak, 8.000. Ia euskaldun alfabetatuak beste 9.700 dira. Hortaz, aldizkariaren penetrazioa handia bada ere, bada oraindik hazteko modurik.

Aldizkariak hasieratik jaso ditu erakundeen diru laguntzak. Gainera, publizitateko diru sarrerak, Berbaizu euskara elkarteak emandako babesak eta dozena bat laguntzaileen lan boluntarioa nahikoa izan dira doakotasunari eusteko. Bi lagunek egun erdiz soldatapean dihardute (*Bertonen* ere egun erdiz dabilzan biak, hain zuzen). Azken zenbakia, urrikoa, 41.a izan da.

### **Etorkizuna**

Hona orain arte egindakoa. Hemendik aurrera, zer? Lehenengo eta behin, herri aldizkarien egoera zein den balantzan jarri beharko genuke. Alde batetik, euren proiektuei eusteko beste direla erakutsi dute. Gutxika-gutxika bada ere, gorantz doaz hala botaldietan nola kalitatean, iraupenean eta oihartzun sozialean. Euskarazko prentsa lokala existitzen dela jakinarazi dute. Eten barik egiten diote euren ekarpena euskararen normalizazioari, erabilera sustatuz eta euskal hizkuntza eremu guztietara eramanez. Hau hain da horrela ezen Bilboko kontu batzuk gaur euskaraz baino ezin diren irakurri. Halaber, aldizkariotako beharginen eta laguntzaileen prestakuntza eta eskarmentua handiagotu egin dira.

Gainera, bai *Berton* bai *Prest!* euskara elkarteak eta herri aldizkariak batzen dituen Topaguneko kide dira. Horrek esan nahi du sektoreko punta-puntako komunikabideekin elkarlanean ari direla, euren trenean bidaiatzen dutela. Hau da, komunikabide txikiak izanik ere, ez daudela bakarrik, ez direla erdal itsasotan itoko. Beste esperientziak ezagutzeko eta proiektu handiagoetan parte hartzeko aukera daukatela, berba baten. Abantaila handia da hori, duda barik.

Zailtasunak, hala ere, ez dira gutxi. Alde batetik, aldizkariaren egiturak: nahikoa dira gaur egungo proiektuei aurre egiteko, baina ez dira saltsa handiagoean sartzeko gauza. Profesionalizatzeko prozesuaren hastapenetan daude, esate baterako. Beste aldetik, ez dago Bilbo osoa bere baitan hartzen duen elkarte edo egiturarik. Begoña, Deustua, Zorrotza... Zatiak bai, baina ez Bilbo osoa.

Oinarri-oinarrian hiru kontu daude. Lasarte-Orian, Eibarren, Durangaldean edo Deba Goienean ez bezala, hemen herri administrazioek ez dute inplikazio larregirik erakutsi. Administrazioak euskarazko prentsari bidea erraztu behar dio, modu eragingarrian erraztu ere, are gehiago administrazio horrek bere euskarazko planetan (Euskara Biziberritzeko Planean, esate baterako) hiriburuak eta komunikabideak giltzarri jotzen dituenean.

Beste alde batetik, Bilbon euskarazko hedabideentzat publizitatea ez da eremu samurra. Hori berez edonorentzat arlo nekeza bada, euskarazko prentsa-erentzat itzel gogorra suertatu ohi da. Lan handia dago hor eginkizun, Bilboko merkatariek, dendariak eta enpresa handiek euskarazko prentsa euren iragar-kientzat euskarri egoki gisa ikus dezaten.

Bilboko euskalgintzak ere indarrak sakabanatuta dauzka hedabide arloan. Inoiz aurrerapauso erabagigarriak ematen bada, elkarlan moduren bat behar-beharrezkoa izango da.

Eta arazo praktikoak ere larriak dira. Lehen, begi-bistakoa da: Bilbon 53.000 euskaldun bizi gara. Alfabetatutakoak 44.000 gara. Beste 63.000 ia euskaldun ere alfabetatuta dago. Beraz, 100.000 balizko irakurle. Non daude? Non bizi dira? Zelan topatu horiek guztiak? Erdal itsasoan ezkutatutako euskal uhartetxoek bila joatea lan eskergea eta luzea izango da.

Euskaldunak aurkituta ere, beste eragozpen handi bat dago: banaketarena. Bilbo lako hiriburu handi baten, etxez etxeko banaketa zeregin gaitza eta garestia da. Doako produktuentzat, zama itogarria. Horra hor beste erronka bat etorkizunerako.

Etorkizunerako diogu, bai, Bilbok etorkizunean bere euskarazko eta kalitatezko komunikabide idatzia edukiko duelakoan gaudelako. Beharriana bada-goelako. Euskarak behar du eta euskaldunok behar dugu. Zailtasun guztien gainetik eta laguntza guztien babesarekin, zelan egin aztertzen ari gara. Bide horretan hortzez eta haginez sakatuko dugu, harik eta Bilbok bere aldizkaria eduki arte.

## **BIBLIOGRAFIA**

- CAMINOS, Jose M. (1996) "La prensa en el País Vasco", Donostia: Orain SA.
- MUXIKA, Joxemari (2002) "Euskaraz idatzitako aldizkarien errolda: 1960-1999", in Mediatika, 2002, 9 zkia. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- GUEZALA, Luis de (2004) "Catalogo de la hemeroteca Uzturre", Bilbo: Sabino Arana elkargoa.
- ORTEGA, Hektor (2002) "Bilbo eta herri aldizkari euskaldunak: Berton eta Prest!", in Euskonews&Media, 157 zkia.
- (2003) "Hiriburuetako herri aldizkariak zertan diren", in Euskonews&Media, 231 zkia.
- ZUBEROGOITIA, Aitor (2003) "Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean". Bilbo: EHUren argitalpen zerbitzua.